



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko uztailaren 3a

62. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Nafarroako 2006ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Foru Legea, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (17. or.).
- Foru Lege proposamena, kudeaketa publikoaren gardentasunari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (17. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lan-kidetzarako hitzarmenak eta neurriak adostu ditzan, 2008-2009 ikasturtetik aurrera irakasle-ikasketak has-ten dituztenek eskatzen den hizkuntza-gaitasuna izan dezaten atzerriko hizkuntza batean irakatsi ahal izateko. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurrez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetako erabilera soziala emateko. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan hiria berritzeko eta eraikinak zaharberritzeko, Nafarroako efizientzia energetikoa hobetuz. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Liburutegi Nagusia izanen denaren kanpoko eta barneko errotulazio guztia. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Nafarroako Museoko kanpoko eta barneko errotulazio guztia. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresen sektore publikoan izaera finkoa duten langileen kontratazioa eten dezan. Osoko Bilkurak onetsia (21. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (21. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko unxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikerketa-zentro berri bat sor dezan, Nafarroan menpekotasuna dutenei zuzendutako laguntzaren arloan. Osoko Bilkurak bazter utzia (23. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Legea,  
2008ko ekitaldirako Nafarroako  
aurrekontu orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen  
24. artikulua aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen bidez, 2008. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorra onetsi ziren.

Foru lege horren gastuen egoeran 431000-43100-4455-322300 aurrekontuko kontusaila dago, "NUPen finantzaketa: Iruñeko eta Tuterako campusak" izenekoa, 57.191.082 euroko kreditua duena.

Bestalde, foru lege horren 24. artikuluan hainbat epigrafeetan banatzen da kontusail horretako

diru-kopurua, baina 56.591.082 euro besterik ez du banatzen; izan ere, ez da aintzat hartzen Parlamentuan sartutako zuzenketa baten ondorioz diru-kopuru hori 600.000 euroan igo zela. Horrenbestez, disfuntzio bat ageri da azkenean onetsitako kredituaren eta epigrafeetan egiten den banaketaren artean. Horregatik, beharrezkoa da agindu horren edukia aldatzea, zuzenketa onetsi ondoren dagoen kredituari egokitzeko.

**Artikulu bakarra.** 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikuluko a) eta b) letrak aldatzea.

2008ko urtarrilaren 27tik aurrerako ondorioekin 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dira. Honatx idazketa berria:

"a) Irakaskuntzaren eta ikerketaren finantzaketarako transferentzia arruntak, 50.436.193 euro, oro har hiru hilabeteko aurrerapenarekin eginen direnak.

b) Irakasleen ordainsari osagarrietarako transferentzia arruntak, gehienez ere 2.653.832 eurokoak, bi epetan eginen direnak, Unibertsitateko Kudeatzailetzak justifikatu ondoren. Gastua gauzatu dela frogatzen duen dokumentazioa erantsi behar da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kontu-hartzailetzak ontzat emana."

## Nafarroako 2006ko kontu orokorrei buruzko Foru Legea.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2006ko kontu orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Nafarroako 2006ko kontu orokorrei buruzko Foru Legea

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatu eta kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legearen 115. artikuluan aurreikusi bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2006ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2006ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

**Artikulu bakarra.** Onetsi egin dira Nafarroako 2006ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Ondoko agiri eta euskarrietan ageri da haien edukia:

– Paperezko argitalpen batean, non kontuak osatzen dituzten argibideen atalik nabarmenenen edukia eta laburpena azaltzen baitira: kontuak osatzen dituzten erakundeen aurrekontuetako likidazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen alderdirik nabarmenenak. Sozietate publikoen kontuen laburpena ere ageri da.

– Euskarri digital batean, non entitate eta sozietate publikoen kontuak luze eta zabal azaltzen baitira, haien auditoretza-txostenekin batera. Aurrekontuetako programen oroit-idazkiak ere saritzen dira euskarri horretan.

## **Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa**

#### ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan ezartzen denez, Nafarroaren eskumena da irakaskuntza arautzea eta administratzea maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, ezertan ukatu gabe Konstituzioan arlo honi buruzko aginduetan ezarritakoa, horiek garatzen dituzten lege organikoak eta Estatuak dituen eskumenak, ikasketa eta lanbide tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzeari eta horiek bete eta bermatzeko goi mailako ikuskapena egiteari dagokienez.

Beste alde batetik, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen du autonomia erkidegoko legeak arautuko dituela Gizarte Kontseiluaren osaera eta eginkizunak, bai eta kideak izendatuko ere, berak ezarritako parametroen barruan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko azaroaren 9ko 20/1994 Foru Legea onetsi zuen, baina Unibertsitatei buruzko 2001eko Lege Organiko berria eta 2007an horrek izandako aldaketa direla-eta nahitaezkoa da legeria Gizarte Kontseiluaren kontzepzio berrira egokitzea.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da, eta gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremanetarako elementua izan behar du.

Gizarte Kontseiluari dagokio Nafarroako Unibertsitate Publikoko jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegira-

tzea, bai eta Nafarroako gizarteak unibertsitatea finantzatzeko laguntza eman dezan sustatzea ere.

Horrez gain, Gizarte Kontseiluak lagundu behar dio Nafarroako Unibertsitate Publikoari Europako goi mailako Hezkuntzaren Esparru berria eraikitzen, eta, halaber, unibertsitatearen eta haren ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak bultzatu behar ditu, unibertsitatearen kalitatea hobetze aldera.

Foru lege honen xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera arautzea da.

#### **I. KAPITULUA**

##### **Xedea eta aplikazio eremua**

##### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera arautzea da.

#### **II. KAPITULUA**

##### **Izaera, helburuak eta eskumenak**

##### **2. artikulua.** Izaera.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko kide anitzeko organoa da, eta Nafarroako erakundeen, gizartearen eta Unibertsitate Publikoaren arteko harremanetarako elementua izan behar du.

##### **3. artikulua.** Helburuak.

Gizarte Kontseiluari dagokio Nafarroako Unibertsitate Publikoko jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeari, bai eta Nafarroako gizarteak Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko laguntza eman dezan sustatzea ere.

##### **4. artikulua.** Eskumenak.

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan ezarritakoaren esparruan, eta Unibertsitatearen estatutuetan eta foru lege honetan ezarritakoaz baliatuz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren eskumenekoak dira jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegira-

tzea, plangintza eta garapen instituzionala, eta gizartearekiko harremanak sustatzea.

**5. artikulua.** Jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eskumenak.

Hauek dira jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eta hobetzeko proposamenak egitea. Horretarako, Gizarte Kontseiluak Unibertsitateko Barne Auditoria eta Kontrolleko Unitateak legezketasun kontrolari eta efikazia eta eraginkortasun ekonomikoari buruz egindako txostenak jasoko ditu.

Gizarte Kontseiluak eskumen hori betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izanen dizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari.

b) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urte anitzeko programazioa onestea.

c) Urte anitzeko programazio hori garatzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Gobernuak izenpetzen dituzten finantzaketa hitzarmenak edo programa-kontratuak hobetzeko proposamenak egitea eta egindako negoziazioen berri izatea aldioro. Hitzarmen edo programa-kontratu horietan adierazita egonen dira, gutxienez, helburuak, finantzabideak, ebaluazio sistema eta helburuen betetze-maila.

d) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko aurrekontua eta haren aldaketak onestea. Aurrekontuari eta hura betetzeko arauari erantsiko zaie Nafarroako Gobernuan unibertsitatearen arloko eskumena duen departamentuak eginiko aldeko txostena, aurrekontuko langileriaren kostuari buruzkoa, eta lortu nahi diren helburuak eta haien kostua biltzen dituen memoria bat.

e) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategikoaren finantzabidea onestea.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak onestea, bai eta urteko memoria ekonomikoa, programaturako helburuen betetze-maila eta aurrekontuko kostuak izandako desbideratzeak azalduta.

g) Kasuan kasuko organoak onetsi aurretik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren menpeko entitateen urteko aurrekontua baimentzea, bai eta haien kapitalean nahiz ondare-funts baliokidean partaidetza handiena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den entitateena ere, merkataritzako

legeria edo, haien araubide juridikoa dela-eta, entitate horiek men egin behar dioten beste bat deusetan ukatu gabe.

h) Artikulu honen aurreko letran aipaturako entitateen urteko kontuak onestea.

i) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileentzat oro har ezarritakoen gehigarri diren lansari kontzeptuen banakako atxikipena erabakitzea, aplikatzekoak diren arauen eta xede horrekin Nafarroako Gobernuak onetsiko dituen mugen barruan, eta Nafarroako Foru Komunitateko legeak ezartzen duen kanpoko ebaluazio organoak merezimenduak baloratu ondoan.

j) Irakaskuntza berekien eta titulu ofizialak lortzeko bideratuak ez diren ikasketen prezioak eta salbuespenak finkatzea, bai eta Unibertsitateak ematen dituen irakaskuntzaz kanpoko zerbitzuak eta Unibertsitateko instalazioak erabili edo lagatzekoak ere.

k) Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere baliabide arrunten kontura ikasketetarako ematen dituen beka, laguntza, salbuespen eta ikasketetarako kredituen politikaren jarraibideak ezartzea, publizitate, merezimendu eta gaitasunaren printzipioei jarraikiz.

l) Nafarroako Gobernuko organo eskudunei proposatzea, onetsi ditzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, haren menpeko entitateen zein haien kapitalean nahiz ondare-funts baliokidean partaidetza handiena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den entitateen zorpetze jarduketa guztiak.

m) Gobernu Kontseiluak proposaturik, kreditu berezia edo kreditu gehikuntzak ematea onestea, baldin eta hurrengo ekitaldira geroratu ezin den gastu bat egin beharra badago eta horretarako krediturik ez badago aurrekontuetan, eta dagoen kreditua nahikoa ez bada.

n) Kapitaleko gastuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gastuen aurrekontuko beste kapitulu batera transferitzeko baimena ematea.

ñ) Unibertsitateko organo eskudunak proposaturik, baimena ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoari ondoko hauek: ondasun higiezinak erosteko, erakundearen ondare-ondasun higiezinak eta aparteko balioa duten ondasun higigarriak eta bere helburuak lortzeko lotzen zaizkion gainerakoak besterendu edo erabiltzeko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jabari publikoko ondasunak desafektatzeko, baldin eta haien balioa Gizarte Kontseiluak ezartzen dituen mugetatik gorakoa bada. Horretarako, Gizarte Kontseiluak, urte natural bakoitzeko lehenbiziko hiruhilekoan, entitatea-

ren ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioa jasoko du, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n eguneratua

o) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

**6. artikulua.** Zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko eskumenak.

Hauek dira zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errendimendua eta kalitatea gainbegiratzea, bere esparru guztietan, eta hobekuntza lerroak proposatzea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kalitate plana prestatzeko lanetan parte hartzea eta proposamenak egitea zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen eta ikertzaileen lanaren barne nahiz kanpoko ebaluazioen emaitzak ezagutzea eta hobetzeko neurriak proposatzea.

d) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontuak Nafarroako Comptos Ganberak auditatzen ez dituen urteetan, Gizarte Kontseiluak kanpoko finantza auditoria bat eskatu ahal izanen du.

**7. artikulua.** Plangintza eta garapen instituzionalaren eskumenak.

Hauek dira plangintza eta garapen instituzionalaren arloko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategikoaren proiektuaren prestaketa lanetan parte hartzea eta Gobernu Kontseiluarekin adostea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearekin gerentearen izendapena adostea.

c) Ingurune sozialaren behar akademikoei erantzuten dieten titulu ofizialak lortzera bideratutako irakaskuntza berriak ezartzeari buruzko txostena egitea.

d) Unibertsitateen Kontseiluak aurretik txostena emanik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak mailaz igo eta bertan irauteko arauak onestea, ikasketa mota bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz betiere.

e) Txostenak egitea eskolak eta fakultateak sortu, aldatu eta kentzeko proposamenei eta unibertsitateko titulu ofizialak, Espainia osoan balio dutenak, lortzera bideratutako ikasketak ezarri eta

kentzeko proposamenei buruz, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 8. artikuluekin bat.

f) Txostenak egitea unibertsitateko ikerketa-institutuak, ikerketa erakundeak edo zentroak, publikoak nahiz pribatuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoari atxikitzeko edo atxikipena kentzeko proposamenei buruz, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 10. artikuluekin bat.

g) Txostenak egitea ikastetxe publikoak edo pribatuak Nafarroako Unibertsitate Publikoari atxikitzeko proposamenei buruz, titulu ofizialak, Espainia osoan balio dutenak, lortzera bideratutako ikasketak ezartzeko, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 11. artikuluekin bat.

h) Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bakarrik edo beste entitate batzuekin batera, edozein mota-tako pertsona juridikoak sortu, aldatu edo desagertzea onestea, eta beste entitate batzuetan parte hartzea ere onestea.

i) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

**8. artikulua.** Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak sustatzeko eskumenak.

Hauek dira gizartearekiko harremanak sustatzeko eskumenak:

a) Urteko jarduketa plan bat onestea, Unibertsitatearen eta bere ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzeko xedearekin, eta gizarteari ezagutaraztea Nafarroako Parlamentuaren bitartez.

b) Eragile ekonomiko eta sozialen partaidetza sustatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakaskuntzen eta ikerketaren finantzaketan.

c) Unibertsitateko tituludunen lan egoerari eta irakaskuntza berrien eskaera sozialari buruzko azterlanak sustatzea.

d) Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzarmenak egin ditzan sustatzea, xedea ikasleen prestakuntza osatu eta, enpresetan edo bestelako entitate sozialetan lanbide praktikak eginez, unibertsitateko tituludunei laneratzen laguntzea helburu duten entitate publiko eta pribatuekin.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza, ikerketa eta hedapen lana bultzatzea, bereziki produkzioaren sektoreekiko loturari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, enpresen eta ehun sozialaren arteko ikerketa eta garapen proiektu bateratuen alde eginez, eta uni-

bertsitateko ikerketetan lortutako emaitzen transferentzia eta hedapen politikak ere lagunduz, gizartearen behar eta eskaerei erantzuteko.

f) Sektore profesionalen, sozialen eta ekonomikoaren partaidetza sustatzea, titulu ofizialak eskuratzera bideratutako irakaskuntzak gizartearen behar eta eskaeretara egokitze aldera.

g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasketak arduradunekin batera, etengabeko prestakuntzako eskaintza bat sustatzea, jardunean ari diren profesionalen zuzendua eta haien premietara egokitua.

h) Unibertsitatearen arloko politikaren garrantziko alderdiei buruzko hausnarketa eta debatea sustatzea, unibertsitateko komunitateak eta ingurune sozialak horietan parte har dezaten lortzeko.

i) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta haren ikasle ohien artean harremanak ezar daitezela sustatzea, loturei eusteko eta unibertsitateko erakundearen aldeko mezenasgo ekintzak bultzatzeko.

j) Gizarte Kontseiluko buruak proposaturik, unibertsitateetako gizarte kontseiluen elkarrekin parte-hartzea onestea.

k) Pertsona nahiz erakundeendako laguntzak, sariak, goresmen edo aintzatespenak proposatzea.

l) Nafarroako kultur eta gizarte aurrerapena bultzatzeko lankidetzan aritzea.

m) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

### III. KAPITULUA Antolaketa

#### 9. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak hemeretzi kide izanen ditu.

2. Sei kidek unibertsitateko komunitatea ordezkatuko dute, honela banatuak:

a) Berezko hiru kontseilukide: errektorea, idazkari nagusia eta gerentea.

b) Gobernu Kontseiluak bere kideen artean hautatutako hiru kide, unibertsitateko komunitatea ordezkatuz: irakasle bat, ikasle bat eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkarikari bat.

3. Hamahiru kidek Nafarroako interes sozialak ordezkatuko dituzte, honela banatuak:

a) Bost kide Nafarroako Parlamentuak gehien gozatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikalen emaitza ofizialen arabera ordezkarikari gehien lortu dituzten bi sindikatuak bana proposaturik.

c) Bi kide, araudi indardunaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean enpresaburuaren elkarrekin garrantzitsuenek proposaturik.

d) Lau kide, Hezkuntza Departamentuko titularrak proposaturik.

#### 10. artikulua. Izendapena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideen izendapenak eta kargu-uzteak Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez eginen dira, unibertsitatearen eskumena duen kontseilariak proposaturik eta foru lege honen 9. artikuluan aipatutako entitate edo erakundeek aukeratu ondoren.

#### 11. artikulua. Eginkizunak.

1. Gizarte Kontseiluko kideek, beren eginkizunak betetzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren interes orokorrak hartuko dituzte kontuan, eta foru lege honetako 3. artikuluan aipatzen diren helburuak bete daitezzen begiratu dute.

2. Kontseiluko kideak ez dira aginduz lotuta egon, eta karguak pertsonalki beteko dituzte. Halere, kargu eskuordetu ahal diote, idatziz eta bilera jakin baterako, Gizarte Kontseiluko beste kide bati; eskuordetzea orokorra izan daiteke edo eguneko gai zerrendako puntu bakoitzeko botoa adierazita. Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak ezarriko ditu eskuordetzerako baldintzak eta gehieneko kopurua.

3. Gizarte Kontseiluko kideek, Kontseiluko buruaren bitartez, bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen duten informazioa eta laguntza eskatu ahal dizkiete Nafarroako Unibertsitate Publikoko organoari.

#### 12. artikulua. Agintaldia.

1. Gizarte Kontseiluko kideak lau urterako izendatu ahal izanen dira, eta jarraian beste behin baidik ez dira hautatu ahal. Arau horretatik kanpo daude berezko kideak.

2. Gizarte Kontseiluko kideek egoera hauetan utziko dute kargua:

a) Agintaldia amaitzean.

b) Ukoagatik edo heriotzagatik.

c) Karguari dagozkion eginbeharrak ez bete-zeagatik, artikuluko honen zazpigarren idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera.



d) Bateriaezintasunagatik, foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

e) Ordezkaritza bertan behera uzteagatik.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea izateko behar den izaera edo kargua galtzeagatik.

3. Agintaldia amaituta, Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzeko aukeratutako kideek jardunean jarraituko dute kide berriek jabetza hartu arte.

4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek arautuko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak Gizarte Kontseilurako izendatutako kideak hautatu eta ordezkatzeko prozedura.

5. Gizarte Kontseiluko berezko kideek kide izaera eragiten duen izaera galtzen dutenean utziko dute kargua.

6. Agintaldia bukatu baino lehen Gizarte Kontseiluko kideren baten tokia hutsik geldituz gero, foru lege honen 9. artikuluan ezarritako prozeduren bidez beteko da, hiru hilabeteko epean gehienez, eta foru lege honen 9. eta 10. artikuluekin bat. Kide berria aurreko titularrak bete gabe daukan agintaldirako izendatuko da.

7. Gizarte Kontseiluak prozedura bat ezarriko du bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan, kideren batek bere eginbeharrak betetzen ez dituen izendatu zuen organoari hura ordezteko proposamen arrazoitua egiteko.

### **13. artikulua.** Eginbeharrak.

Gizarte Kontseiluko kideek eginbehar hauek dituzte:

a) Osoko Bilkuretara eta, zer batzordetako kide diren, horien bilkuretara ere joatea.

b) Karguak direla-eta beren esku utzitako zeregin guztiak betetzea.

c) Barneko eztabaiden gaineko isilpekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta espresuki isilpekotzat jotzen diren gai eta jarduketan ere.

d) Bateriaezintasunari buruzko arauak betetzea, foru lege honekin bat haiengan eragina izan dezaketenak, eta Gizarte Kontseiluko buruari jakinaraztea bateraezintasuna ekar dezakeen inguruabar oro, bai hasieratik izandakoak bai ondoren gertatutakoak.

e) Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezartzen diren beste guztiak.

### **14. artikulua.** Bateriaezintasunak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideek ezin dute Unibertsitatearekin lanak, zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen dituzten enpresa edo sozietateetako zuzendaritza kargurik bete, ez berez ez tarteko pertsona baten bidez. Bestalde, ezin dute enpresa edo sozietate horien kapitalean 100eko 10 baino gehiagoko partaidetzarik izan. Bateriaezintasun horrek ez die eragiten Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 83. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiekin bat izenpetutako kontratuei.

2. Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzeko dituzten kideak ezin dira unibertsitateko komunitateko kideak izan.

## **IV. KAPITULUA** **Funtzionamendua**

### **15. artikulua.** Egitura organikoa.

Hau da Gizarte Kontseiluaren egitura:

a) Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra, eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak ezartzen dituen batzordeak edo Osoko Bilkuraren erabakiz eratutakoak.

b) Kontseiluko burua, idazkaria eta buruordeak, Gizarte Kontseiluko Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak xedatzen duenarekin bat.

### **16. artikulua.** Osoko Bilkura.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura kontseiluko buruak eta kideek osatzen dute, eta haren eginkizuna da foru lege honen 4. artikuluan aipatutako eskumenei buruzko erabakiak hartzea, deusetan ukatu gabe Gizarte Kontseiluaren gainerako organoei erregelamendu bidez esleitzen zaizkien eginkizunak.

### **17. artikulua.** Batzorde Iraunkorra.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak batzorde iraunkor bat izanen du, Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz izendatua.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren zeregina da Osoko Bilkuraren eginkizunak bere gain hartzea osoko bilkuren arteko aldiak, Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezartzen diren arauarekin bat.

**18. artikulua.** Batzordeak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak Osoko Bilkuraren eta batzordeen bidez beteko ditu bere eginkizunak. Batzordeen eginkizunak izanen dira beren gain utzitako gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta Osoko Bilkurari proposatzea eta, hala behar denean, erabakiak hartzea Osoko Bilkurak eskuordetuta.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak ikasketa batzorde bat, ekonomia eta finantza batzorde bat eta gizartearekiko harremanetarako batzorde bat izanen ditu, gutxienez.

a) Ikasketa Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarduera zientifiko eta akademikoaren inguruko gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

b) Ekonomia eta Finantza Batzordeak Unibertsitatearen afera ekonomikoen eta finantzabideen arloko gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

c) Gizartearekiko Harremanetarako Batzordeak ingurune sozialarekiko harremanei dagozkien gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

**19. artikulua.** Kontseiluko burua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko burua Nafarroako Gobernuak izendatuko du interes sozialak ordezkatzen dituzten kideen artean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideen gehiengoak proposaturik.

2. Kontseiluko buruaren agintaldia lau urtekoa izanen da, eta beste agintaldi bakar baterako aukeratu ahal izanen da.

3. Kontseiluko burua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren ordezkaritza izanen da.

4. Kontseiluko buruaren eskumena da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren bilkuretarako dei egin eta bertan buru gisa aritzea, erabakiak eta legeria indarduna betetzen direla begiratzea, eta Antolaketaren eta Funtzionamendu Erregelamenduak ematen dizkion gainerako eginkizun guztiak.

**20. artikulua.** Kontseiluko buruordea.

Gizarte Kontseiluko buruak buruorde bat edo bi izendatu ahalko ditu, lehentasunezko ordenan, Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzen dituzten kideen artean. Kontseiluko buruordea buruaren ordez arituko da, kargua hutsik dagoenean,

betetzen duena hiltzen bada, bertan ez bada go edo uko egiten badio karguari.

**21. artikulua.** Idazkaria.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakariak izendatuko du idazkari bat. Izendatua Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea ez den bat izan ahalko da, eta kasu horretan hizpidearekin bai baina botorik gabe ariko da bilkuretan. Idazkariak ez du ikasketak nahiz ikerketa arloko eginkizunik izanen Unibertsitatean.

2. Idazkariak ondoko eginkizun hauek izanen ditu: kontseiluko buruari laguntza ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren aferetan, kide anitzeko organoen idazkaritzako eginkizunak betetzea, eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak esleitzen dizkion gainerakoak.

**22. artikulua.** Lansariak eta kalte-ordainak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko buruak eta idazkariak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak finkatzen dituen ordainsariak jasoko dituzte, kargu horietarako ezarritako dedikazio mailaren arabera.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko gainerako kideek, beren eginkizunetan aritzeagatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak dieta eta joan-etorrietarako ezartzen dituen ordainak kobratuko dituzte.

**23. artikulua.** Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua egin eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio, onetsi dezan.

2. Erregelamendu horretan Osoko Bilkuraren bilera ohikoak egiteko maiztasuna finkatuko da, bai eta deialdiak egin, bilerak eratu eta erabakiak hartzeko baldintzak ere.

3. Foru lege honen 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan ezartzen diren onespenuk egiteko erabakiak hartzeko erabateko gehiengo beharko da, ezertan ukatu gabe Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan horri buruz aurreikusten dena.

**24. artikulua.** Erabakiak betearazi eta argitaratzea.

1. Unibertsitateko errektoreari dagokio Gizarte Kontseiluak hartutako erabakiak betearaztea. Horretarako, hartutako erabakien egiaztagiria igorriko du idazkariak Errektoregari.

2. Errektoreak aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman daitezen araudi indardunaren arabera publizitatea behar duten erabakiak, bai eta beste batzuk ere, Gizarte Kontseiluaren beraren iritziz argitaratzea komeni denean.

**25. artikulua.** Araubide juridiko-administrati-boa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren erabakiek eta, Osoko Bilkurak eskuordeturik, batzordeek hartutakoek amaiera ematen diote bide administratiboari, eta zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatu behar dira, ezertan ukatu gabe aurretiko administrazio errekursoak, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarri bezala.

**26. artikulua.** Aurrekontua eta langileak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere aurrekontuaren proiektua eginen du; gero, Unibertsitatearen aurrekontuan sartuko da, Nafarroako Gobernuaren eta Unibertsitatearen arteko finantzaketa hitzarmenean ezarritakoaren barruan.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak foru lege honek esleitzen dizkion egin-kizunak betetzeko behar diren langileak izanen ditu; horretarako, antolaketa autonomoa izanen du eta beharko duen langile kopurua proposatuko du. Halere, Gizarte Kontseilua ahaleginduko da Nafarroako Unibertsitate Publikoak dituen langileez baliatzen.

**Xedapen iragankor bakarra.** Behin-behineko araubidea.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte

Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, eratuko da.

2. Foru lege honek indarra hartu baino lehen eraturako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak jardunean jarraituko du eta arau honek ematen dizkion eskumenak beteko ditu, kontseilu berria eratu arte.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea

Indarrik gabe geldituko da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legea, bai eta foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua eginen du eratu eta hiru hilabetera, gehienez ere. Erregelamenduak Nafarroako Gobernuaren onspena beharko du eta indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Arau garapena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau betearazi eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa**

#### ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat ziurtatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritar guztiei bide emanen diena lana eta oinarrizko errenta izateko, herritartasun eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu, ulerturik eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak jaso eta gainerako herritarren eskubide berekin gizartearen erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla ulertuta.

Une honetan aurrerapausoak ematen ari dira premia duten pertsonen zainketak egoki ematea bermatzen duten eskubideetan, baina egia da, halaber, modu efektiboan aitortu behar dela herritarrek eskubidea dutela guztion artean sortzen dugun aberastasunaren zati batean parte hartzeko, eta aberastasun horrek oinarrizko errenta duin baten bitartez iritsi behar duela premia handiena dutenengana.

Objektiboki, Nafarroako Foru Komunitatearen egoera ekonomikoak aukera ematen dio bere gain hartzeko gaixotasunen batengatik edo ezgaitasunen bat izateagatik, eta saiatu diren arren, lan merkatuan sartzerik izan ez duten pertsonen beharrezkoa duten hobekuntza hori.

**1. artikulua.** Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 1. artikulua honelaxe geldituko da:

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, Nafarroan egoitza duten eta Nafarroan errolatuta dauden herritar guztiei lan bat eta, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean eta bera garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badira, oinarrizko errenta eskuratzea segurtatuko diena, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

**2. artikulua.** Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 4. artikulua honelaxe geldituko da:

“4. artikulua. Zenbatekoak, epeak eta esleipenak.

1. Oinarrizko errentaren zenbatekoa zehazteko, erlazionatuko dira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehunekoak –urtero ezarriko da–, dirusarrera propioak eta familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua; zehaztapen hori hurrengo eskalaren arabera egingen da, aipatzen den urte bakoitzeko.

#### 2008. URTEA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 85. gehienez.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 105.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 115.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 125.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 135.

6 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 145.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 10 baino gutxiago izanen.

#### 2009. URTEA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 90, gehienez.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 110.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 120.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 130.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 140.

6 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 10 baino gutxiago izanen.

#### 2010. URTETIK AURRERA

1 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100, gehienez.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 120.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 130.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 140.

5 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 10 baino gutxiago izanen.

Inongo familiak ez du kobratuko oinarrizko errenta moduan lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 150 baino gehiago.

2. Gizarte gaietako departamentu eskudunari dagokio oinarrizko errenta esleitzea, eta sei hilabeteko esleitu da; sei hilabeteko epe hori beste horrenbesteko epe batzuekin luza daiteke modu jarraituan, gehienez ere bi urte egin arte.

3. Salbuespen gisa, gizarte gaietako departamentu eskudunaren titularraren foru aginduaren bidez, gainditu egin ahalko da aurreko idatz-zatian ezarritako laguntzaren gehieneko epea, baldin eta horretarako arrazoi bereziak badaude. Salbuespeneko egoera horietan ezarri ahalko da, halaber, artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritakoa baino ezberdina den zenbateko bat.

Arrazoi berezi horiek eta zenbatekoak erregelamendu bidez ezarriko dira.

4. Oinarrizko errenta esleitzeko gehieneko epea izanen da gizarte zerbitzu orokorren zorroan ezartzen dena, eta laguntza hau prestazio ziurtatutzat hartuko da.

5. Minusbaliotasunagatik oinarrizko errenta baino prestazio txikiagoa jaso eta modu jarraituan lanposturen bat eskuratzetik ez duten pertsonen ere ziurtatuko zaie prestazio ekonomiko osagarri bat; prestazio horren zenbatekoa, gutxienez, bien arteko aldeari dagokion kopurua izanen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100era iritsi arte, oinarrizko errenta jasotzen duten gainontzeko pertsonen baldintza berberekin.”

**3. artikulua.** Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 5. artikulua honelaxe geldituko da:

“5. artikulua. Prestazioa jasotzeko betebeharrak.

5. artikulua. Oinarrizko errenta jasotzeko betebeharrak erregelamedu bidez ezarriko dira, eta gutxienez hauek eskatu beharko dira:

a) Hogeita bost urte baino gehiago eta hirurogeita bost baino gutxiago izatea.

Salbuespen gisa, eta espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, familia unitate bat osatzen duten pertsonak prestazioaren onuradun izan ahalko dira, nahiz eta baldintza guztiak ez bete, baldin eta erregelamenduz zehaztuko diren behar larriko egoeretan badaude. Kasuotan, prestazioa ematen duen ebazpenak aski arrazoitua beharko du.

b) Gizarteratzeko eta laneratzeko akordio bat sinatu beharko da, sei hilabete baino gutxiagoko denboraldi batean.

c) Frogatu beharko da Nafarroan jarraian bizi izana eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan, salbu eta eskatzailea gizarte-bazterketa egoeran dagoen familia-unitate bat bada eta adingabeak baditu bere kargu, kasu horretan salbuetsi egin baitaiteke baldintza hori eskatzetik.

2. Gizarteratzeko eta laneratzeko akordioen edukia eta sinatzeko epea erregelamenduz garrantzuko dira.”

**Xedapen iragankor bakarra.** Bizi izan beharreko denboraldia 2009ko urtarrilaren 1era arte.

Foru lege honetako 5.1 artikuluko c) letran oinarritzeko errenta jasotzeko Nafarroan bizi izan beharreko denboraldia, 2009ko urtarrilaren 1era arte, hogeita lau hilabetekoa izanen da.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Erregelamendu garapena.

Foru lege honen erregelamendu garapena indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteetan egingen da.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egun berean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Legea, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Espaniako Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babeserako eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, aurrea hartzeko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zaintzea.

Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 53. eta 54. artikuluetan gure erkidegoari Estatu oinarritzeko legeria lege bidez garatzeko eskumenak aitortzen zaizkio osasunaren eta higienaren arloan, bai eta osasun laguntzarako kudeaketaren garapen exekutiboaren arloan ere.

Bestetik, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, zeina eskumenen esparru horren barrenean aldarrikatu baitzen, osasun

laguntzaren orenganatzea ezarri zuen, inor baztertu gabe, Nafarroako herritar guztientzat, 4. artikuluan finkaturiko printzipio hauen arabera: osasunaren kontzeptu integrala, efizientzia, ekitatea, deszentralizazioa, zerbitzu-ematearen kalitatea eta humanizazioa, parte-hartzea, askatasuna eta baliabideen plangintza eta erabilera. Zehazki, ekitatearen printzipioak eragina du osasun sistema erabiltzeko baldintzen berdintasuna bermatzekoan, eta denboraren aldetiko edozein eragozpen saihesteko beharra dakar.

Hala eta guztiz ere, aipatu foru legeak herritarrek osasun zerbitzuak direla-eta dauzkaten eskubideak hartzen eta garatzen baditu ere, beharrezkoa da osasun laguntza espezializaturako eskubidea eraginkor bihurtuko duen arau berarizko bat, laguntza espezializatu hori programatua denean eta ez larrialdikoa; hartara, erantzuna emateko gehienezko epe batzuk bermatu behar dira eta, halaber, Osasunari buruzko Foru Legea eta Ebakuntzetako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio eta jarduketara programa arautzen duen apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legea osatu behar dira. Horrekin, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetu nahi da, prozedurari eta gaixoaren duintasunari erreparatuta onargarritzat jotzen diren itxaronaldiak ezarriz. Dena den, aipatu hobekuntzak eginik ere aurreikusitako itxaronaldiak gainditzen badira, foru lege honek berme gehigarri bat ezartzen du, herritarrei eskatzen duten osasun laguntza segurtatuko diena, bai eta laguntza espezializatu horri buruzko informazio orako eskubidea ere.

Argi dago itxaron zerrendak egoteak berak arazo batzuk ekartzen dizkiela herritarrei, eta egoera hori dela-eta herritarrek sentiberatasun berezia dutela. Horrenbestez, osasun prestazioaren eskakizunei erantzuteko epe egoki bat bermatzea da erabiltzaileak gehien baloratzen dituen alderdi-  
etako bat; hain zuzen ere alderdi horri erantzun egokia eman ahal diote eta eman behar diote osasun zerbitzuek.

Lege honen helburua da osasun laguntzaren eskaeraren eta osasun zerbitzu publikoen eskaintzaren arteko desorekak konpontzeko bideak ematea, eta Nafarroako herritarrei onartzeko moduko itxaronaldiak bermatzea, eta horretarako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) errespetatu beharreko muga batzuk ezarriko dira.

Foru lege honen bidez, osasun laguntza espezializaturako eskubideaz benetan baliatzea ahalbidetu nahi da, laguntza espezializatu hori programatua eta larrialdietatik kanpokoak den kasuetarako; halaber, osasun laguntza espezializatu horri buruzko informaziorako eskubidea bermatzen da.

Eremu horretan ulertu behar dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduketak, hau da, osasun laguntza espezializatu programatua epe egokian bermatzearen eremuan.

## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Foru legearen helburua.

Foru lege honek helburu du osasun laguntza espezializatu programatua eta larrialdietatik kanpokoan erantzunak emateko bermeak ezartzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egin beharreko ebakuntza kirurgikoei, kanpoko kontsul-  
tei eta proba diagnostikoei dagokienez.

#### 2. artikulua. Onuradunak.

Nafarroan bizilekua duten pertsonak izanen dira foru lege honetan ezarritako bermeen onuradunak. Foru lege honetan ezarritako bermeen onuraduna izateko ezinbesteko baldintza izanen da inskribatuta egotea Nafarroako itxaron zerrendetan dauden gaixoen erregistroan, 8. artikuluan aurreikusita baitago.

## II. TITULUA

### Erantzuna emateko epeak

#### 3. artikulua. Itxaroteko gehienezko epeak.

1. Nafarroako osasun sistema publikoan laguntza espezializatu programatua eta larrialdietatik

kanpokoak behar duten gaixoei ondoren ezarritako epeetan emanen zaie behar duten laguntza:

a) Laguntza espezializatuko kontsultak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 30 eguneko epean egitea bermatzen da.

b) Lehentasunezko kontsultak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 10 eguneko epean egitea bermatzen da.

c) Proba diagnostikoak, programatuak eta larrialdietatik kanpokoak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 45 eguneko epean egitea bermatzen da.

d) Ebakuntza kirurgikoak: fakultatiboak eskatu eta gehienez ere 120 eguneko epean egitea bermatzen da. Bihotzeko kirurgiari dagokionez, epea gehienez ere 60 eguneko izanen dela bermatzen da.

e) Ebakuntza kirurgikoak, baldin eta haietan itxaronaldiak ez badu gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik ekartzen: gehienez ere 180 egun.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako epeak egun baliadunetan zenbatuko dira, hau da, igandeak eta jaiegunak kanpo utzita.

3. Ebakuntza kirurgiko programatu eta larrialdietatik kanpokoetan, bermaturik daude Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ematen diren prozedura eta teknika guztiak.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zein prozedura kirurgikok duten 120 eguneko gehienezko epea.

4. Kanpoko kontsulta programatuetan bermaturik egonen dira laguntza espezializatuko kontsultak, baldin eta azterketak ez badira, eta betiere azterketa egiteko itxaron beharreko denborak ez badu ekartzen gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik.

Azterketa da gaixo bati patologia jakin baten jarraipena egiteko espezialitate horretan bertan egiten zaiona.

5. Proba diagnostikoetan, bermaturik daude Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egiten diren proba guztiak.

6. Erregelamendu bidez finkatuko dira arestian deskribaturiko modalitateei dagozkien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko prozedurak eta espezialitateak.

7. Osasun laguntza espezializatuaren arloko bermeei buruzko foru lege honetatik kanpo gera-

tzen dira larrialdiko laguntza beharrezkoa den prozesuei aplikatu beharreko prozedurak.

#### **4. artikulua.** Zentroa hautatzea.

1. Gaixoek eskubidea izanen dute laguntza hartu nahi duten zentroa aukeratzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzu propioen sare publikoan.

2. Aurreikusten bada gaixoari ezin izanen zaio la laguntzarik eman aurreko artikuluan aipaturiko epeetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak horren berri eman beharko dio, eta Nafarroako osasun sistema publikoko beste zentro batzuk eskainiko dizkio, edo, ezinezkoa bada, horien orde, osasun zerbitzu publikoarekin hitzarmena duten beste zentro batzuk eskainiko dizkio, erantzuna emateko foru lege honetan ezarritako gehieneko epeak bete daitezten.

#### **5. artikulua.** Berme-sistema.

1. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritako itxaronaldiak gainditzen badira, gaixoak lehenetsuneko osasun laguntza eskatu ahal izanen dio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, gaixoak hala eskatuta, berehala eman beharko dio osasun laguntza Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sare publikoko osasun zentroetako edozeinetan, edo, halakoetan ezinezkoa bada, osasun sistema publikoarekin hitzarmena duten zentroetan.

**6. artikulua.** Bermea galtzeko edo eteteko arrazoiak.

1. Osasun laguntza espezializatuan erantzuna emateko gehieneko epea eten egingen da egoera hori eragin zuen arrazoiak irauten duen bitartean, honako kasu haueetan:

a) Gaixoak eskatuta, baldin eta, justifikatutako arrazoiak alegatuz eta eskaintzen zaion osasun arretari uko egin gabe, ebakuntza kirurgikoa, kontsulta edo proba diagnostikoa atzeratzeko eskaintzen bada.

b) Osasun laguntzako prozesua atzeratzea justifikatzen duen arrazoi kliniko bat dagoenean.

2. Osasun laguntza espezializatua izateko bermea galduko da, baldin eta:

a) Gaixoak uko egingen badio bere hitzorduari, edo bertaratzen ez bada, inolako arrazoirik eman gabe.

b) Gaixoak hitzordua atzeratzen badu inolako arrazoirik eman gabe.

c) Gaixoak uko egingen badio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentroa hautatzeko egindako eskaintzari.

3. Erregelamenduz zehaztuko dira artikuluhonetan justifikaziorako aipatzen diren arrazoi pertsonalak.

### **III. TITULUA**

#### **Itxaron zerrendei buruzko informazio sistemak**

##### **7. artikulua.** Informazio sistema.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hilerio informazioa emanen du Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez, eta herritar guztien eskura jarritako beste hedabide ofizial batzuen bitartez, prozedura kirurgikoetarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu bakoitzean dagoen gaixo-kopuruari eta itxaronaldien batez bestekoari buruz.

2. Osasun sistema nazionalen itxaron zerrendei buruzko informazioa modu homogeneoan tratatzeko neurriei buruzko maiatzaren 23ko 605/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak; betiere, foru lege honetan ezarritakoari eta Nafarroako Foru Komunitaterako gero batean onets daitezkeen ezarritakoari kalterik egin gabe. Itxaron zerrendei buruzko informazioa unean-unean aplikatzekoak diren oinarritzko araudiari eta errege dekretuei lotuko zaie.

##### **8. artikulua.** Erregistroa.

Nafarroako itxaron zerrendetan dauden gaixoen erregistroa sortuko da. Erregistro horrek maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua bete beharko du. Itxaron zerrendei buruzko informazioa unean-unean aplikatzekoak diren oinarritzko araudiari eta errege dekretuei lotuko zaie.

Erregistro horretan laguntza espezializatu programatua eta ez larrialdikoa eskatzen duten gaixo guztiak inskribatuko dira, eta betiere Datu pertsonalak babesteko Legean ezarritakoa beteko da.

Antolaketa eta funtzionamendua erregelamendubidez zehaztuko dira, apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legeak ezarritakoa kontuan hartuz; foru lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kirurgiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arautzen du.



**9. artikulua.** Urteko txostena.

Osasun Departamentuak, maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua betetzeko, itxaron zerrendei buruzko txosten bat eginen du sei hilean behin, eta egokitzen jotzen dituen beste datu batzuk ere jasoko ditu; adibidez, foru lege honek bermaturiko gehienezko epeak gainditutako eta berme-sistemi atxikitako gaixoen kopurua, eta xede horretarako jarritako zentroak. Txosten hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da. Itxaron zerrendei buruzko informazioa oinarritzko legerian eta unean uneko errege dekretuetan ezarritakoaren arabera egokitu beharko da.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Gaixoen erregistroa abian jartzea.

Erregelamendu bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren itxaron zerrendetan dauden gaixoen erregistroa abian jarriko da.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Gaixoen erregistroan izena ematea.

Administrazioari aukera emanen zaio Nafarroako itxaron zerrendetan dauden gaixoen erregistroan bere kabuz sar ditzan foru lege honek indarra

hartzen duen unean lehen kontsultarako, proba diagnostiko baterako edo ebakuntza kirurgiko baterako itxaron zerrendetan dauden pertsonak.

**Xedapen iragankor bakarra.** Ezarpena.

Foru lege hau pixkanaka garatuko da. Nafarroako osasun sare publikoan dauden laguntza espezializatuko zentroek beren antolamendu-egitura eta hitzordua emateko sistemak egokitu beharko dituzte, 2008. urtea amaitu baino lehen, foru lege honen 3. artikuluan ezarritako gehienezko epeak bermatu ahal izateko.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio egin dezan, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, bertan jasotako erregelamendu bidezko garapena.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa.**

**OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA**

Legebiltzarrak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parla-

mentarien elkarteak aurkeztu zuen eta 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Foru Lege proposamena, kudeaketa publikoaren gardentasunari buruzkoa.**

**OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA**

Legebiltzarrak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako kudeaketa publikoaren gardentasunari buruzko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzarako hitzarmenak eta neurriak adostu ditzan, 2008-2009 ikasturtetik aurrera irakasle-ikasketak hasten dituztenek eskatzen den hizkuntza-gaitasuna izan dezaten atzerriko hizkuntza batean irakatsi ahal izateko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzarako hitzarmenak eta neurriak adostu ditzan, 2008-2009 ikasturtetik aurrera irakasle-ikasketak hasten dituztenek eskatzen den hizkuntza-gaitasuna izan dezaten atzerriko hizkuntza batean irakatsi ahal izateko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzarako hitzarmenak eta neurriak adostu ditzan, 2008-2009 ikasturtetik aurrera irakasle-ikasketak hasten dituztenek eskatzen den hizkuntza-gaitasuna izan dezaten atzerriko hizkuntza batean irakatsi ahal izateko**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzarako hitzarmenak eta neurriak adostu ditzan, 2008-2009 ikasturtetik aurrera irakasle-ikasketak hasten dituztenek eskatzen den hizkuntza-gaitasuna izan dezaten atzerriko hizkuntza batean irakatsi ahal izateko.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetara erabilera soziala emateko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetara erabilera soziala emateko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetako erabilera soziala emateko**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-

nua premiatzen du, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten 195 etxebizitzetako erabilera soziala emateko.

2. Plan hori sei hilabeteko epean aurkeztu beharko da, eta kontuan izanen ditu tokian tokiko udalaren beharrianak.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan hiria berritzeko eta eraikinak zaharberritzeko, Nafarroako efizientzia energetikoa hobetuz.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan hiria berritzeko eta eraikinak zaharberritzeko, Nafarroako efizientzia energetikoa hobetuz".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan hiria berritzeko eta eraikinak zaharberritzeko, Nafarroako efizientzia energetikoa hobetuz**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proposamen bat egin dezan,

Nafarroako energia-efizientzia hobetuz eraikinak zaharberritzeko eta hiria berritzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-batzorde baten sorrera jaso dezan Legebiltzarrean aurkeztu behar duen Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunean, Nafarroan eraikinen energia-efizientzia hobetzeko eta eraikinak zaharberritzeko politiken abiaraztea eta aplikazioa bideratzeko. Batzordean ondokoek parte hartuko dute: Etxebizitza Departamentua, Toki Administrazio Departamentua, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabideen Zentroa eta VINSIA.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du leihatila bakarra sor dezan, zeinak etxebizitza bateko prestazio guztiak hobetu eta zaharberritzeko lor daitezkeen laguntza guztiak bideratuko baititu, etxebizitza zaharberritu nahi duten bizilagunen lana erraztea helburu.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Liburutegi Nagusia izanen denaren kanpoko eta barneko errotulazio guztia.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Liburutegi Nagusia izanen denaren kanpoko eta barneko errotulazio guztia."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Liburutegi Nagusia izanen denaren kanpoko eta barneko errotulazio guztia**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Liburutegi Nagusia-  
ren egoitza berria egonen den eraikinean kanpoko nola barneko errotulazio eta seinaletika osoa Nafarroako bi hizkuntzetan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, jar ditzan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Nafarroako Museoko kanpoko eta barneko errotulazio guztia.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Nafarroako Museoko kanpoko eta barneko errotulazio guztia."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz eta gaztelaniaz egin dezan Nafarroako Museoko kanpoko eta barneko errotulazio guztia**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Nafarroako Museoko kanpoko nola barneko errotulazio eta seinaletika osoa Nafarroako bi hizkuntzetan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, jar ditzan.

– Nafarroako Museoaan ikusgai diren funtsak eta bertan egiten diren erakusketetan, iraunkorrak nola aldi batekoak, euskara eta gaztelania erabil ditzan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresen sektore publikoan izaera finkoa duten langileen kontratazioa eten dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresen sektore publikoan izaera finkoa duten langileen kontratazioa eten dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresen sektore publikoan izaera finkoa duten langileen kontratazioa eten dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarraibide espresak eman diezazkion enpresen sektore publiko osoari, bertan behera utz dezan langile finkoak kontratatzeko nahiz aldi baterako lanpostuak finko bihurtzeko asmo oro, halako moduz non egin beharreko kontratazioak aldi baterakoak izanen baitira, harik eta sektorea antolatu arte.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko gehieneko epean zehatz dezan Lekarozko ikastetxeko instalazioetako beharrianen programa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrianen programa horretan gutxienez ere jaso daitezten, oinarri-oinarriko elementu gisa, eraikinaren hezkuntza- nahiz kultura-historiarekin bat datozen ondoko bi jarduketak:

Hizkuntza arloko prestakuntza zentro bat, helburu izanen duena, besteak beste, Nafarroako irakasleen birziklatzea eta hobekuntza, bereziki hizkuntzen alorreko gaur egungo nahiz etorkizuneko beharrianak aztertu eta konpontzen laguntzeko.

Kulturgune bat, zeinetan tokia izanen baitute, beste jarduera batzuen artean, Cigaren ondareaz gain –gaur egun sakabanatuta dago–, Bidasoako Eskolako margolari ugariak, laurogeiko hamarkadatik ongi dokumentatu eta aztertuta baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eraikinaren segurtasuna areagotu dezan, eta errespetatu beharreko eremuen narriadura atzeraezina eragotz dezan.

4. Dagoen espazioaren handitasuna, esanahia eta potentzialitatea ikusita, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Baztango Udalaren iradokizunak entzun ondoren, beste aukera batzuk azter ditzan, bai ekimen publiko hutsekoak bai ekimen pribatuarekin lankidetzan abia litezkeenak, betiere bermatuz proposatzen diren erabilerak izaera sozialekoak izanen direla nagusiki, Baztanen beharizan sozioekonomikoekin bat.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, Nafarroako zenbait herritako gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera, eta herri horietan dagoen arazo hori konponbidean jar dezan.

2. Lan-talde horretan ordezkaturata egon behar ko dira, nekazariez eta ehiztariez gain, ukitutako toki entitateak, Nafarroako Gobernua eta elkarte ekologistak ere, ondokoa dutela helburu: duen garrantziagatik, landa eremuetako sektore asko ukitzen dituen egiazko problema hau gainditzeko modua ematen duten konponbideak bilatzea.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikerketa-zentro berri bat sor dezan, Nafarroan menpekotasuna dutenei zuzendutako laguntzaren arloan.**

**OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ikerketa-zentro berri bat sor dezan, Nafarroan menpekotasuna dutenei zuzendutako laguntzaren arloan."

Legebiltzarrak 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	